

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure Youtubeko kanalaren kontsumitzaileak ingurumenari buruz kontzientziazteko asmoa duten pertsona guztiak izango dira, baina, gehienbat, gazteak izango dira, bere pentsamoldea aldatzea errazagoa izango delako. Haien Youtubera sar daitezke ikasteko, eta interes handiagoa baldin badute, ematen ditugun mintzaldietara etor daitezke.

Gure hitzaldien publikoa euskadiko ikastetxe publiko zein pribatuetako ikasleak izango dira. Ikasle hauek DBH 2. mailatik aurrerakoak izango dira.

Gure zerbitzuaren inguruan interesa adierazten duten eskolekin harremanetan jarri eta hitzaldien edukiak zehaztuko ditugu, lortu nahi diren helburuak kontutan hartuta, eta betiere ikasleen adina abiapuntutzat hartuz. Hitzaldiak eta tailerrak euskeraz zein erderaz egiteko aukera eskeiniko dugu, aterik ez ixteko.

Noizbait denda fisiko bat irekitzen badugu, Gasteizen izango da; beraz, Gasteizko biztanleak eta Gasteiza etortzen diren turista batzuk izango dira gure bezeroak.

Produktuak gure web orriaren bidez erosi ahalko dira, beraz mundu mailan erosi ahalko dira, baina gure Youtubeko edukiak eta hitzaldiak euskaraz eta gaztelera izango direnez, gehienbat hizkuntza horiek hitz egiten dituztenek erosiko dituzte. 580 milioi pertsonak hitz egiten dute gaztelera, eta 750000 dira euskaraz hitz egiten dutenak.

Gure aplikazioa 3 hizkuntzatan egongo da: euskara, gaztelera eta ingelesa. Gainera, erabilerraza izango da, nahi duen jende guztiak erabili ahal izateko (gure aplikazioa erabiltzeko ez zara Youtubeko jarraitzailea izan behar edo gure hitzaldietara etorri behar), hau da, askea izango da.

Printzipioz, Androideko Play Storen egongo da, eta, arrakasta handia badu, Appleko App Storen egongo da. Beraz, arrakasta izan arte, gure erabiltzaileak Android erabiltzaileak izango dira.

Jendea gure aplikazioa deskargatzera animatzeko, hileroko lehiaketa bat antolatuko dugu (zabor gehiena seinalatutako zakarrontzietara botatzen duenak eta zerbitzu honen bidez 20 segunduko bideo batekin egiaztatzen duenak irabaziko du), eta lehiaketa horren irabazleak, gure denda digitalerako produktuentzat deskontuak izango ditu. Honekin gendea animatu nahi dugu aplikazioa erabiltzera. Honen berri youtuben eta gure sare sozialetan emango dugu.

Hasieran, Gasteizko mapa beteko dugu bakarrik, aplikazioari hasiera emateko, baina eguneratzen joango gara euskadi osoa sartzeko, eta, etorkizun batean, ahal bada, Espainia osoa zerbitzuaren barruan sartu nahi dugu.

